

ZER, HASTEN GARA BERRIRO?



*ZER, HASTEN GARA BERRIRO?



ZER, *HASIKO* GARA BERRIRO?



ZER, *HASIKO* GARA BERRIRO?



Gero eta zabalduago daude hiztunen artean
honelako kalkoak:

■ ***Hartzen** dugu kafe bat?

Forma egokia geroaldikoa da:

● ***Hartuko dugu*** kafe bat?



Adi! Bereiz dezagun galdera hauen esanahia:

Etortzen zara bulegora?


Informazio-eskea (egunero, maiz edo noizean behin etortzen ote zaren galdetzen dizut; ez daiteke, inola ere, eskabidetzat har).

Etorriko zara bulegora?

Eskabidea (zu bulegora etortzea nahi dut).



Eskabideak eta proposamenak egiteko, galderazkoa erabiltzen da sarri:

 ***Ekarriko didazu***, mesedez, liburu hori?
■ ****Ekartzen*** didazu, mesedez, liburu hori?



Baina galderarik gabeko asko ere molde berekoak dira:

🌐 Tira, ba, etxean **utziko zaitut**, eta **etorriko naiz** gero zure bila, ondo iruditzen bazaizu.

■ *Tira, ba, etxean **uzten zaitut**, eta **etortzen naiz** gero zure bila, ondo iruditzen bazaizu.





Nori : peru.altugarai@unib.eus

Nork: andone.elorz@unib.eus

Gaia: txostena

Cc:

Bcc:

Erantsia: Dokumentuak eta Ezarpenak\Nire agiriak\Txostena.doc\

Adiskide hori:

Honekin batera doakizu prostituzioa ezeztatzearen aldeko agiria. *Nahi baduzu, oraintxe **hitz egiten** dugu horretaz.

Ez adiorik.

A. Elorz.



Nori: peru.altugarai@unib.eus

Nork: andone.elorz@unib.eus

Gaia: txostena

Cc:

Bcc:

Erantsia: Dokumentuak eta Ezarpenak\Nire agiriak\Txostena.doc\

Adiskide hori:

Honekin batera doakizu prostituzioa ezeztatzearen aldeko agiria. Nahi baduzu, oraintxe **hitz egingo** dugu horretaz.

Ez adiorik.

A. Elorz.



GALDERAZKO BESTE ADIBIDE BATZUK:

🌐 **Utziko didazu** pixka batean egoten?

■ *Uzten didazu pixka batean egoten?

🌐 Zer, andereño, **egingo dugu** sokasaltoan?

■ *Zer, andereño, egiten dugu sokasaltoan?

🌐 **Egingo dugu** bilera?

■ *Bilera egiten dugu?



GALDERARIK GABEKO ADIBIDE BAT:

● Orduan, hamarretan **jarriko dugu** hitzordua..., **itxaron (ieзадazu)** han pixka batean, eta elkarrekin **joango gara** berehala.

- * Orduan, hamarretan **jartzen dugu** hitzordua..., **itxaroten didazu** han pixka batean, eta elkarrekin **joaten gara** berehala.



Estilo-aukera gisa, agintera erabil daiteke, esanahi berarekin (bigarren pertsonakoetan):

- **Utziko didazu** hitz bi esaten?
- **Uztazu** hitz bi esaten.



Edo subjuntiboa (lehen pertsonetan):

- Beraz, honetantxe **utziko dugu** gaia gaurkoz.
- Beraz, **utz dezagun** honetantxe gaia gaurkoz.



Batzuetan, jakina, bada bestelako aukerarik ere:

● Zer iruditzen zaizu kafe bat hartzen badugu?



ZER, BUKATUKO DUGU HASITAKOA?

